

HAUR LITERATURA

Sutondoko ipuinen garra

Lore AGIRREZABAL

Nostalgia. Horixe sentitu nuen Juan Kruz Igerabidek eta Elena Odriozolak argitaratu duten "Euskal Herrietako ipuinak" liburua hartu nuenean. Tapa gogorreko azalak berak beste garai bat ekarri zidan gogora, eta, lehen begiratuan, Odriozolaren margolanek eta Igerabidek egindako ipuin hautaketak nirea baino lehenagoko haurtzaro batera eraman ninduten; ipuinak sukaldan edo sutondoan entzun zituzten umeen garaira.

Hala ere, hau ez da nostalgikoentzako liburua, nahiz eta horiek ere gustura hartuko duten. Ez, hau gaur egungo umei irakurtzeko ipuin bilduma eder bat da. Bertan, Juan Kruz Igerabidek bere kontaera gozoan idatzi ditu Pirinioen bi aldeetako euskal herrietan jasotako ipuin batzuk, lehengo mendean Jose Maria Satrustegik Nafarroan, eta, Joxe Miel Barandiaranek eta Joxe Arratibelek Gipuzkoan bildu zituztenak, hain zuzen.

Euskarazko ahozko literaturatik jasotako bost istorio dira: "Baratzuri", "Zapatari txikia", "Txoritxoaren arrautza", "Erregea eta gatza" eta "Errotariaren txakurra eta txori kantaria". Irakurri orduko ezagunak

egingo zaizkizu gehienak. Gogoan duzu Mari Xor edo Mari Errauskine? Eta Perutxo txikia edo Barbantxo? Zuk noizbait irakurri edo entzundako ipuinen antzekoak irudituko zaizkizu. Izan ere, horixe da ahozko literaturaren ezaugarrikerik ederretarikoa, alegia, kontatzen diren aldiro aldatzen edo berritzen direla ipuinak.

Hain zuzen, egileak berak hitzaurrean dioen bezala, ahozko tradizioaren bidez jasotzen ditugun ipuinak munduan bizi dira, herrialde batetik bestera igarotzen dira kontalarien ahoetan mugak eta hizkuntzak gaindituz. Bide horretan luzatu, laburtu, beste batzuekin nahastu eta eguneratu egiten dira.

Bada, liburu honetan, Igerabidek ere ahoz aho jasotako bost ipuinen berrirakurketa gozoa eskaintzen digu. Noizbait norbaiten ahotan sortu eta bigarren kontaketarako aldatu ziren ipuinak izanik, berak ere etxean jaso eta eman bezala idatzi ditu; gaur egungo euskararen, oso egoki eta ozen irakurtzeko moduan, ondoren, nahi duenak bere erara kontatzen. Hala ere, ipuinotan agertzen diren hainbat sinbolo edota arketipo mantendu egin ditu; Antzinako ipuin askotan errepikatzen diren gatza eta eraztuna, besteak beste. Gatza garai batean oso preziatua zen eta truke-



EUSKAL HERRIETAKO IPUINAK

Autorea: Juan Kruz Igerabide.

Ilustratzailea: Elena Odriozola.

Argitaletxea: Denonartean, 2017.

Orrialde kopurua: 54 orri.

Salneurria: 16 euro.

rako txanpon gisa erabiltzen zen, eraztuna, berriz, denboraren izaera ziklikoaren adierazgarri zen. Ipuinak euskaraz jaso eta idatzi dituen arren, gaztelaniara ere itzuli ditu. Horien bildumatxoa Cenlit argitaletxeak kaleratu du liburua "Cuentos del país de los vascos" tituluarekin.

Ilustrazioei dagokienez ere, ahozko tradizioak irudimena pizteko duen magiari muzin egin gabe osatu dute liburua. Izan ere, ipuin bakoitzak Elena Odriozolak ilustratutako orrialde zabalgarri bana du, baina gainerako irudiak geure baitan sortu beharko ditugu, ipuinen haria marraztu beharrean, kontakizun bakoitzaren une jakin baten printzak soilik irudikatu baititu. Bere lanak, gainera, garai bateko eszena kostunbristak ekarriko dizkigu gogora, Aurelio Artetaren koadroetatik atera izan balitu bezala, baina bere estilo propioan: lerro finez marraztutako lepo zabalekin, buru biribilekin eta sorbalda eroriekin.

Azken finean, liburu honetan bildutako sutondoko istorioekin beste su batzuk piztera datoz Igerabide eta Odriozola, era horretako ipuinen transmisioa ia galdua baitago gaurko guraso eta aitona-amonen artean. Asegabeko gosea da, ordea, ipuina; lehengo umeek telebistarik gabeko sukaldetan eskatzen zituzten, gaurkoek, aldiz, oheratzean eta pantaila guztiak itzaltzean. Beraz, aprobetxatu momentu horiek liburu honi lekua egiteko; Odriozolaren ilustrazioek zabalduko dute istorio bakoitza eta handik aurrerakoa libre erai-kiko da bakoitzaren irudimenean, ametsik gozoenetan murgiltzeraino.

ABAO
OLBE

Denboraldia
2017-18
Temporada

PEDRO ETA OTSOA

Sergei Prokofiev

Euskarazko bertsioa
Versión en euskera

Laguntzailea / Colaborador:

Laguntzailea / Con la colaboración de:

Bizkaibusak
operara
eramaten zaitu
Bizkaibus
te lleva
a la ópera



martxoak 10 marzo

[18:00 h.]

martxoak 11 marzo

[12:00 / 18:00 h.]

Eszena-zuzendaritza /

Dirección de escena: Enrique Lanz

Produktzioa / Producción:

Compañía Etcétera

Tokia / Lugar: Teatro Arriaga Antzokia

3 urtetik gora / A partir de 3 años

Sarreren salmenta / Venta de entradas:

www.abao.org

www.bbk.es

www.teatroarriaga.com



Laguntzaileak / Colaboradores:

Euskadi, azpizena, bien común